


EKINTZA SINDIKALEKO INFORMEA (2023-2024)

2024ko uztaila



1974 - 2024 • ZABALTZEN

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. SARRERA | 4 |
| 2. ONDORIOAK | 4 |
| 3. 2023/2024 KURTSOA DATUETAN | 6 |
| 4. KURTSOEN ARTEKO KONPARAKETA | 7 |
| 5. LANGILE BORROKEN ONDORIOZ GERO ETA LANGILE GEHIAGOK DUTE HITZARMENA INDARREAN | 8 |
| 6. BIZKAIAN SEKTOREKO LANGILEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEKO AURRERA PAUSO GARRANTZITSUA EMAN DUGU..... | 9 |
| 7. LABen LEHENTASUNEZKO BORROKA INDARTUTA AURTENGO KURTSOAN: LAN HARREMANETARAKO MARKO PROPIOA, LANGILE GUZTIENTZAT BERTAKO HITZARMEN SEKTORIALAK | 9 |
| 8. ZERBITZU PUBLIKOAK ETA ZAINZA BORROKAN | 11 |
| 9.- TRANTSIZIO EKOSOZIALA BULTZATUZ, ENPLEGUAREN DEFENTSA ALDARRIKATUZ | 12 |
| 10. EREMU PREKARIZATUENETAN SINDIKALISMOA INDARTZEN | 13 |

1.- SARRERA

Euskal Herria langile antolakuntza eta borrokarako esparru autonomo eta berezitua da. Hala erakusten dute urtez urte aurkezten ditugun datuek. Langile borroka ez dira apaldu, akordio batzuk itxi eta gatazka berriak sortzen dira. Euskal Herriko langileria bere eskubideak defendatzeko prest dagoela erakusten ari da urtez urte, ez soilik bere enpleguari esklusiboki lotzen zaizkion eskubideak, baita jendarte guztiarentzat aldarrikatzen ditugun zerbitzu publiko duinak jasotzeko eskubidea ere, zaintza barne.

Langileria prest azaldu da lan eta bizi baldintza duinak eta benetan bizigarriak aldarrikatzeko aurrera urratsa emateko. Zaintza, feminismoa, zerbitzu publikoak, negoziazio kolektiboko marko propioaren defentsa, euskaraz lan eta bizitzeko eskubidearen aldarria, antirrazismoa, eros-ahalmenaren bermea... Borroka guztiak busti dituzten elementuak izan dira, batzuetan batzuk hartu dute garrantzia handiagoa eta besteetan besteek. Erasoen aurrean ere mobilizatu gara, izan murrizketa edo kaleratzeen aurrean, izan jazarpen sindikala edo askotariko bazterkeriak salatzen.

2.- ONDORIOAK

Borroka horiek guztiek emaitza argiak utzi dituzte:

> Negoziatio kolektiborako marko propioa indartu egin da, estaldura mailan eta baita edukietan ere

2010/2012ko lan erreformek, negoziatio kolektiboaren estatalizazioarekin batera, enpresa eremuaren aldeko apustua eta negoziatio kolektiboaren ahultzea ekarri zuten. Testuinguru horretan, LABen hasieratik defendatu genituen negoziatio eremu guztiak estatalizazioaren kontrako borrokan, bertako negoziatio esparruen alde egin genuen gurean, negoziatio esparru propioa ardaztu izan duten sektoreko hitzarmenen aldeko jarrera argia adieraziz. Patronalek erreformek ematen zizkieten indarguneak erabiltzeko borondate osoa zuten, eta borroka indartzeko apustu garbia egin genuen: langile borroka indartu genituen bertako langileen lan eta bizi baldintzak hobetzeko helburuz, negoziatio kolektiborako marko propioa aldarrikatuz.

Zentzu horretan, LABek marko propioa blindatzeko inizatibaz jokatu du. Bi lanuzte orokor bultzatu genituen, aurrerako eragin mugagabearen defentsan bata eta estatalizazioaren aurka bestea. Gainera, 2013an bertako negoziatio kolektibo babesteko Akordio Intersektorialaren bultzatzaile nagusia izan ginen, ondoren saiakera hori Confebask-ek zapuztu zuen arren. Orduan egindako lanak ezinbesteko izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu nagusien eta patronalaren arteko 2017ko negoziatio kolektiboko egituraren inguruko Sektorearteko Akordioa erdiesteko. Akordio horrek bertako negoziatio kolektiboko eremua babestea izan zuen helburu. Eta ondorioak argiak izan dira: 2015ean EAEn hitzarmena iraugita zuten langile kopurua %18koa zen; gaur egun, ordea, %4,7ra murriztea lortu dugu.

Patronal eta enpresa batzuek juridikoki hitzarmen batzuen aurka egin izanak ekar zitzakeen zalantza juridikoak uxatze aldera, euskal alderdiei Espainiako estatuko Gobernuarekin gai hau blindatzeko eskatu genien, eta egun, Espainiako estatu mailako lege aldaketek bertako hitzarmen sektorialak babesten dituztela esan dezakegu, LABek hasieratik finkaturiko posizioa babestuz, eta langileon borroka ondoz.

Aurtengo ikasturtean ugariak izan dira bertako negoziatio kolektiboko markoaren defentsan aktibaturiko borroka. Izan ere, bertako hitzarmenek lehentasuna izan arren, hitzarmen propioa ez dagoen kasuetan hitzarmena lortzeko borrokaldira aktibatu eta patronalarekin adostasuna lortu beharra dago hitzarmena gauzatu ahal izateko. Horrela egin genuen iaz Nafarroako esku-hartze sozialean, esaterako, eta aurten Gipuzkoako egurgintzan. Eta saiakera horretan jarraitzen dugu Nafarroan zahar egoitzetan, EAeko kimiketan eta kolektibitateetan, Nafarroako teknikariek edota etxeko langileekin.

Ikuspegi honetatik, aipatzekoak dira Osasunbidean izandako bi garaipen: alde batetik, osasun sistema publikoa ahulduko lukeen medikuen esklusibotasuna ezabatzeko asmoari aurre egin dio LABek, era irregularrean esklusibotasun osagarria jasotzen zuten kasuak salatuz. Beste alde batetik, osasun langileentzako karrera profesionala ezartzea lortu du LABek,

joan den ikasturtean egindako greba eta mobilizazio dinamikari esker. Osakidetzan, berriz, pribatizazio prozesuari galga jarri dio LABek, besteak beste, legeari iruzur egin asmoz egindako kontratuen zatiketa salatuz.

> Eremu prekarizatueta sindikalismoa indartzen ari da

Sindikalismoa garatzeko zailtasun handienak dituztenak dira, aldi berean, behar handiena dutenak ere. Ez da kasualitatea, patronalak bere botere guztia erabiltzen baitu langileak prekarizatuta izateko, eta antolakuntza gaitasuna zapuztea ezinbestekoa da horretarako: langileak sakabanatuz, atomizatuz, prekarizazio modu berriak sortuz (autonomo faltsuak, digitalizazioa eta aplikazioak erabiliz...) edota zuzenean mehatxatuz eta jazarpen sindikala gauzatuz.

LABek aspaldi ekin zion sindikalismoa eraberritzeko prozesuari, gure lehentasunen artean eremu baztertuenak eta prekarizatueta kokatuz. Ernairekin ere gazte prekaritatea borrokatzeko elkarlana martxan dugu, eta pixkanaka, eremu horietan langileak antolatzen ari dira. Ikasturte honetan borroka aipagarriak izan ditugu: sektore feminizatueta, Telepiztan Ernairekin batera, Amazonen hitzarmenaren defentsan eta jazarpen sindikalaren aurka, Enplegu Zentro Berezieta hitzarmen propioa aldarrikatuz edota langile migratu eta arrazializatuak gehiengo diren Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintza.

> Zaintzaren afera erdigunean kokatu da

Zaintzaren krisia lehen mailako erronka dugu Euskal Herrian. Zaintza beharrak gero eta handiagoak diren honetan zaintza lan ez ordainduak emakumeon* gain jarraitzen dute hein handi batean. Zaintza lan profesionalak ere feminizatueta jarraitzen dute, prekarizatueta, ezinbestekoak izan arren. Eta ratio handiek eta lan karga altuek, langileen lan baldintzak nabarmen okertzeaz gain, zerbitzua modu duin batean garatzea oztopatzen dute, zaintza beharra duten erabiltzaileen bizi kalitatean negatiboki nabarmen eraginez.

Ikasturte honetan zaintzako langileek izugarriko borroka egiten jarraitu dute. Euren lan baldintzak hobetzea aldarrikatzearekin batera, zaintzaren arazoa dimentsionatzen eta politizatzen lagundu dute. Nafarroako eta Arabako zahar egoitzetako langileek zein enpresa desberdinetakoek -Matia fundazioa, CEAR, Inmon eta Santa Mariñe helduen egoitzak, Grupo Cinco...- borroka esanguratsuak aktibatu eta garatu dituzte. Euren borrokari esker, zaintza arloan itxitako gatazken portzentaia hobetzea lortu da, iazko %25etik %35era igarota, baina oraindik batezbestekoa baino hamar puntu baxuagoa izaten jarraitzen du.

Testuinguru horretan egin zuen Mugimendu Feministak Greba Feminista Orokorreko deialdia, LABek, beste sindikatu batzuekin eta Mugimendu Feministarekin elkarlanean, babestu eta aurrera ateratakoa. Sektore guztietako langileen ekarpena ezinbestekoa izan bazen ere, zaintzako langileen borroken ekarpena funtsezkoa izan zen Greba Feminista Orokorra izaniko arrakasta ulertzeko.

> Langileek eta herritarrek zerbitzu publiko sendoak nahi dituzte

Aurtengo ikasturtea ardaztu duen beste gai bat, zalantzarik gabe, zerbitzu publiko sendoen aldarria izan da. Zerbitzu publikoen eraispenak gero eta kezka sozial handiagoa sortzen duen une honetan, administrazio publikoko langileen borrokek lan baldintzen aldarrikapenak zerbitzu publiko sendoenarekin bat egitea lortu dute. Osasungintza aitzindaria izan da erabiltzaile eta eragile sozialen eta langileen aldarrikapenek bat egiteko bidean, aliantzak eraikiz eta mobilizazio bateratuak deituz.

Zerbitzu publiko sendoak eraikitzeko ezinbestekoa da langileekin adostasunak lortzeko borondatea izatea, eta iaz Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera inposatzailea salatu bagenuen, aurtan ere gauza bera diogu, negoziatorako borondate falta dagoela eremu publikoan: aurtengo ikasturtean gatazka orokorren %46,32 itxi bada, administrazio publikoko gatazkei dagokienez zenbateko hori %26,47koa da; hau da, lau gatazketatik hiruk irekita jarraitzen dute oraindik. Administrazio publikoko langileen lan baldintzak hobetzeko ezinbestekoa da jarrera inposatzaile honekin amaitzea.

> Trantsizio ekosoziala aldarrikatu eta enplegua defendatzeko borroka esanguratsuak izan dira

Trantsizio ekosozial baten beharra agerikoa da. Egun indarrean daukagun sistema kapitalistak planetaren biziraupena

arriskuan jartzerainoko egoerara eraman gaitu, klima larrialdia, lur eta ozeanoen kutsadura, bioaniztasunaren galera edota lehengaien agorpena eraginez. Trantsizio ekosozial bat behar dugu, beraz, egoera horri aurre egiteko, eta ildo horretan, industriak eraldaketa sakonak bizi beharko ditu. Prozesu horrek guztiak planifikatua izan behar du LABen ustez, esku-hartze publiko sendoa izango duen industria politika berri baten bidez, besteak beste. Eta bide horretan funtsezkoa izango da langileon parte hartzea, trantsizioa langileekin egin behar baita, eta ez langileen eskubideen kontura.

Testuinguru honetan patronalak trantsizio ekosoziala aitzakia gisa erabili dezake murrizketak inposatzeko eta kaleratzeak edo itxierak justifikatzeko. LAB bidezko trantsizio ekosozial batean bidelagun izango da, langileon eskubideak erdigunean ezarriko dituen trantsizio batean. Patronalaren interes eta kapital metaketa areagotzeko asmoen aurrean, ordea, gogor erantzungo dugu.

Ildo horretan, ikasturte honetan borroka esanguratsuak egin dira. Esaterako, Mecaner eta Cementos Rezola. Lehena, deslokalizazio baten aurrean langileen borroka trantsizio ekosozialerako plan batekin uztartuz. Bigarrena, ustezko deskarbonizazio prozesuaren sinesgarritasun falta salatu eta enpleguaren defentsaren aldeko borroka garatuz.

> Euskararen aurkako oldarraldiari aurre egiteko mobilizatu dira langileak

Euskararen aurkako oldarraldiak bere horretan jarraitzen du, euskararen aurkako salaketa eta epai berriak iritsi baitira aurtengo ikasturtean ere gurera. Epai eta eraso berriak iritsi ahala, langileak ez dira geldirik egon. Euskararen aurkako erasoaren dimentsioa eta garrantzia ulertu eta herritarrok zerbitzua euskaraz jasotzeko dugun eskubidea aldarrikatzeaz gain, langileok euskaraz lan egitekoa ere mahaigaineratu dugu.

3.- 2023/2024 KURTSOA DATUETAN

- > 190 borroka piztu ditugu.
- > 84 borrokatan greba erabili da. Beraz, greben presentzia borroken %44,21ean egon da.
- > Sektore mailako borrokak 35 izan dira, horietatik 18 sektore feminizatueta.
- > Enpresa mailako borrokak 155 izan dira. 20 arlo feminizatueta.
- > Itxitako gatazken portzentaia %46,32 izan da.

> Datuak federazioka

| GATAZKAK SEKTOREKA | INDUSTRIA | ZERBITZU PRIBATUAK | ZERBITZU PUBLIKOAK | GUZTIRA |
|---------------------|-----------|--------------------|--------------------|------------|
| OROKORREAN | 75 | 54 | 61 | 190 |
| FEMINIZATUAK | 2 | 17 | 19 | 38 |
| GREBAREKIN | 39 | 22 | 23 | 84 |
| ITXITA | 36 | 29 | 23 | 88 |

Industria izan da gatazka gehien aktibatu dituen sektorea. Edonola ere, enpresetako gatazka izan dira gehien-gehienak, 75 horietatik 72, hain zuzen ere. Joera hori orokorra izan da edonola ere, zerbitzu pribatu zein publikoetan sektoreko gatazka kopuru txikiagoa zenbatu baitugu iazko urtearekin alderatuta. Hurrengo ataletan sakonago azalduko badugu ere, jaitsiera hori estaldura tasa igotzearen ondorio gisa ulertzen dugu.

Sektore feminizatuak, zaintza sektoreak eta zerbitzu publikoak, batezbestekoarena baino itxiera tasa txikiagoarekin

| | BORROKAK | ITXITA |
|---|----------|-----------|
| AZPIKONTRATA/KONTZERTATUAK | 48 | 24 %50,00 |
| PUBLIKOA ZUZENEAN/ ENPRESA PUBLIKOAK | 34 | 9 %26,47 |
| ZAINZA EREMUKOAK | 14 | 5 %35,71 |
| SEKTORE FEMINIZATUETAKOAK | 38 | 13 %34,21 |

laz azpikontrata, eremu publiko, zaintza sektore eta sektore feminizatueta fenomeno azpimarratu genuen, borroka kopuru altuak izanagatik itxitako gatazken kopuru txikiagatik. Aurten, administrazio publikoaren azpikontrata eta kontzertatueta borrokek beren emaitza izan dute, itxitako portzentaia batezbestekoaren goitik kokatuz. Beste hiru eremuetan, berriz, itxiera tasa baxuagoarekin jarraitzen dute.

Honek bi arrazoiri erantzuten dio, gure ustez:

- Patronalak zaintza lanei eta sektore feminizatueta lanei esleitzen dien balore baxua, batetik.
- Bestetik, adostasunetara iristeko administrazio publikoaren borondate eza.

> Datuak herrialdeka

Gatazka gehien aktibatu diren herrialdea Bizkaia izan da, ondoko taulan agertzen den bezala. Edonola ere, langile aktiboaren kopuruarekin alderatuz, Araba eta Nafarroa dira proportzioan gatazka eta greba gehien aktibatu diren herrialdeak.

| | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | NAFARROA | EAE | HEGO EUSKAL HERRIA | GUZTIRA |
|--------------------------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|--------------------------|------------|
| OROKORREAN | 30 | 71 | 33 | 40 | 14 | 2 | 190 |
| SEKTORE FEMINIZATUETAKOAK | 7 | 10 | 8 | 6 | 6 | 1 | 38 |
| GREBAREKIN | 15 | 31 | 16 | 14 | 6 | 2 | 84 |
| ITXITA | 11 | 34 | 15 | 19 | 5 | 2 | 86 |

> Langileak mobilizatzeko arrazoiak

Langileak mobilizatzeko arrazoi nagusia negoziazio kolektiboa izan da, gatazken erdia baino gehiagotan (%51,58). Enpresetako eskubide murrizketa edota kaleratzeen aurrean mobilizatu direnak, hirutik bat (%33,16).

Aurtengo ikasturtean atentzioa deitzen duen beste gaia euskararen defentsarena izan da. Euskararen oldarraldiaren aurkako mobilizazioek igoera handia izan dute; euskararen aurkako salaketa eta epaien aurrean langileak lana eta zerbitzua euskaraz egin eta jaso nahi dutela aldarrikatzera aterata dira kalera.

4.- KURTZOEN ARTEKO KONPARAKETA

Gatazken goranzko joera eten egin da gatazka sektorialetan, ez horrela enpresetakoetan. Azken urteetan eta bereziki iazko ikasturteko borroken ondorioz, hitzarmenen estaldura tasa altuarekin ekin genion aurtengo ikasturteari, borrokara deituak iaz baino askoz ere langile gutxiago egonik. Kontrara, enpresetako gatazkek goranzko joerari eutsi diote, langileak oraindik aktibatuta jarraitzen duela erakutsiz.


Orain dela bi ikasturte %25eko itxiera tasarekin amaitu bagenuen urtea, iaz %45era igo zen, eta aurten ere, itxiera tasa berdintsuarekin itxi dugu ikasturtea: %46,32.

| | 2017/2018 | | 2018/2019 | | 2021/2022 | | 2022/2023 | | 2023/2024 | |
|-------------------------------------|-----------|--------|-----------|--------|-----------|--------|-----------|--------|------------|-----------|
| | | GREBAK | | GREBAK | | GREBAK | | GREBAK | | GREBAK |
| BORROKA KOPURUA | 124 | 67 | 127 | 80 | 171 | 93 | 204 | 108 | 187 | 84 |
| SEKTORE FEMINIZATUETAKOAK | 27 | | 29 | | 48 | | 44 | | 38 | |
| SEKTORE MAILAKOAK | 34 | | 18 | | 31 | | 54 | | 32 | |
| SEKTOREKOAK ETA FEMINIZATUAK | 12 | | 7 | | 18 | | 21 | | 18 | |
| ENPRESA MAILAKOAK | 90 | | 109 | | 140 | | 150 | | 155 | |
| ENPRESAKOAK ETA FEMINIZATUAK | 15 | | 22 | | 30 | | 23 | | 20 | |

5.- LANGILE BORROKEN ONDORIOZ GERO ETA LANGILE GEHIAGOK DUTE HITZARMENA INDARREAN

2023ko lehen seihileko borrokek estaldura tasaren igoera nabarmena eragin zuten. Langile borrokei esker, iazko kurtsoko gatazka kopuru handiaren ondorioz, langileriaren lan baldintzek hobekuntzak izan zituzten, 2023ko irailean euren hitzarmena dagoeneko itxita zeukaten langile kopurua nabarmen handitu zelarik.

Abendu bukaeran hitzarmenen estaldura tasak beti egiten du behera, hitzarmen kopuru handi batek indarraldia galtzen duelako. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuetan soilik oinarritu gara, Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) datuen faltan.



Iturria: EAEko Lan Harremanen Kontseilua (LHK).

2022ko abendu bukaeran, langileen %27k soilik zuen hitzarmena indarrean. Langile borrokei esker, urrian dagoeneko kopuru hori %60 baino altuagoa zen, eta 2024a hasi dugunean langileen erdiak baino gehiagok dagoeneko hitzarmena berriua zuen.

Datu horien atzean dagoen errealitatea ukalezina da: 2023ko gatazka kopuru handien ondorioz, hitzarmen kopuru altu bat berriua ahal izan genuen, langile askoren lan baldintzak hobetuz. Ondorioz, 2024an hitzarmenaren defentsan borrokara deituak izan diren langileak (LAB parte den gatazken %51,58) nabarmen gutxiago izan dira sektore mailan. Hala ere, enpresetako gatazkek goranzko joerarekin jarraitu dute. Langileak gero eta gehiago ari dira aktibatzen euren lan baldintzen defentsan, eta patronalaren ofentsiba gero eta handiagoa izateaz gain, langileriaren aktibazioa gero eta indartsuagoa da.

6.- BIZKAIAN SEKTOREKO LANGILEEN LAN BALDINTZAK HOBETZEKO AURRERA PAUSO GARRANTZITSUA EMAN DUGU

Herrialde honetan azken ziklo edo ikasturtean eremu prekarizatuak erdigunean kokatu ditugu, baita azpikontratetako langileak ere. Gatazka kopuru handiena izan duen herrialdea izan da, baita gatazka gehien itxi diren lurraldea ere. Langileak kalera atera eta mobilizatu egin dira, eta akordio esanguratsuak lortu ditugu merkataritzan, kiroldegietan edo esku-hartze sozialean, esaterako, eta ostalaritzan ere aurrerabidean jarri dugu hitzarmen berria. Horrekin batera, aipamen berezia behar du zaintza esparruan etxez etxeko laguntza zerbitzuko hitzarmenaren aldeko borroka.

Periferiaren periferian kokatzen diren esparruak dira, prekarizatuak, feminizatuak asko, enpresa makrotaldean interes ekonomikoak gailentzen diren eremuak. Horregatik, indar bereziz txalotzekoa da bertako ordezkari eta langileek erakutsi duten borrokarako determinazioa. Sektorez sektore, egoera ezin zailagoa izanagatik, borrokaren aldeko apustu garbia egin dute, sektore osoaren lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin eta bide kolektiboari lehentasuna emanez.

Ezin esan dezakegu bide erraza izan denik; izan ere, etengabekoak izan dira oztopoak: patronalaren jarrera mugiezina, hainbat sindikaturen interes korporatiboak sektorea kolektibo bateratu bezala albo utziz, azpikontratak ematen duen zerbitzuaren titular den kontrataren jarrera ez kolaboratzailea... Zentzu horretan, sektore askotan, gehiengo duen sindikatuak gehiengo izaera ematen dion ardura albo batera utzi du eta akordioak kritikatzera mugatu da, langileen artean tentsio uneak eraginez.

Horren guztiaren ondorioz, tarte berezia eskaini behar diogu Bizkaia mailan borroka hauek lideratu dituzten langile horiei, eta balioan jarri eginiko ibilbidea eta erdietsitako akordioak. Izan ere, beraien borroka nekazinari esker, sektore horietan guztietan lan-baldintzak nabarmen hobetzea lortu da.

7.- LABen LEHENTASUNEZKO BORROKA INDARTUTA AURTENGO KURTZOAN: LAN HARREMANETARAKO MARKO PROPIOA, LANGILE GUZTIENTZAT BERTAKO HITZARMEN SEKTORIALAK

2012ko lan erreformaren ondorioz, lan harremanen estatalizazioak, hau da, bertako lan harremanetarako markoa ahultzeak, Hego Euskal Herriko langileon lan baldintzen okertze zuzena ekarri zuen. Bestetik, enpresetako hitzarmenei sektorekoen gainetik lehentasuna ezartzeak ere, langile askoren lan baldintzak okertzeaz gain, beste asko bertako hitzarmen sektorialik gabe uztea eragin zuen. Errealitate horretara iristeko ezin albo batera utzi bertako sindikatuak garaturiko estrategiak. Sindikatu nagusiak ez zuen bertako hitzarmen sektorialen aldeko apusturik egin, eta sindikatu estatalek ez dute posizio argirik izan, Madrilen estatalizazioa bultzatu eta hemen posizio anbigua izanez.

Testuinguru horretan, LABek hasieratik defendatu zituen negoziazio eremu guztiak estatalizazioaren kontrako borrokan, sektoreko hitzarmenen aldeko jarrera argia mantenduz. Sektoreko hitzarmenek eremuko langile guztientzako lurzoru amankomuna ezartzen duten heinean, sistemak bultzatzen dituen langileen arteko arrakalei aurre egiteko bitarteko garrantzitsuak dira; horregatik izan du LABek hain jarrera irmoa eremu horretan.

LABek marko propioa blindatzeko inizatibaz jokatu du, eta aurrerapausoak lortu ditu zentzu horretan. 2013an bertako negoziazio kolektiboa babesteko Sektorearteko Akordioaren bultzatzaile nagusia izan zen, ondoren saiakera hori Confebask-ek zapuztu zuen arren. Orduan egindako lanak ezinbestekoak izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatu nagusien eta patronalaren arteko 2017ko negoziazio kolektiboko egituraren inguruko Sektorearteko Akordia erdiesteko. Akordio horrek bertako negoziazio kolektiboko eremua babestea izan zuen helburu. Eta ondorioak argiak izan dira: 2015ean EAE-n hitzarmena iraugita zuten langile kopurua %18koa zen; gaur egun, ordea, %4,7ra murriztea lortu dugu.

Bide horretan, patronalak oso kontziente izan dira erreformek ematen zieten aukerez, eta indargune horietaz baliatu izan dira negoziazio kolektiboa euren nahi zuten eremura eramateko. LABek, patronalaren posizioa mugitzeko borroka ezinbestekoa dela defendatu du eta esandakoa praktikara eraman du. Bertako negoziazio eremua blindatzeko proposamenak borrokaren bidez bultzatu ditu, baita patronal eta enpresa batzuek juridikoki hitzarmen batzuen aurka egin izan dutenean ere 2017ko akordia zalantzan jartzeko helburuz.

Zalantza juridiko oro uxatze aldera, euskal alderdiei Espainiako estatuko Gobernuarekin gai hau blindatzeko eskatu genien, eta egun esan dezakegu Espainiako estatu mailako lege aldaketek, bertako hitzarmen sektorialak babesten dituztela, LABek hasieratik finkaturiko posizioa babestuz, eta langileon borrokaren ondorioz.

Ikasturte honetan ugariak izan dira marko propioaren defentsa ardatz izan duten langile borrokek. Hona hemen horietako batzuk:

> Gipuzkoako egurgintza

2003. urteaz geroztik erorita zegoen hitzarmena izanik, 20 urte baino gehiagoz egon gara sektore honetan hitzarmen propiorik gabe. Erabat estatalizatua zegoen eremua zen, langile orori estatu mailako hitzarmena aplikatzen zitzaiona. Horrela, erdietsi den hitzarmen kolektibo sektorial berriaren ondorioz, sektorearen negoziazio esparrua berreskuratzea lortu da eta lan-baldintzek Gipuzkoako errealitateari erantzuten diete, eta ez, orain arte bezala, Espainiako estatuakoari.

> EAEko sektore publikoko dinamika

Madriken erabakitze eskumen eskusiboari aurre egiteko batu gara aurtengo ikasturtean sektore publiko osoko langileak. Eta horrekin batera, hemengo instituzioek aitzakiarik izan ez dezaten eta dagokien arduraz joka dezaten galdatu dugu.

Zerbitzu publikoen gainbehera nabarmenak erantzule argiak ditu eta herritarron osasun, zaintza, zein bestelako oinarrizko eskubideen gainetik ezin direla interes partidista eta ekonomikoak gailendu argi adierazi dugu.

Horrekin batera, langile publikoen lan-baldintzak hemen, Euskal Herrian, erabaki behar direla aldarrikatu dugu, horretarako beharrezkoak diren lege aldaketa eta akordio politikoak erdigunean kokatuz. Egunditugun baliabideak mugatuak izan arren, administrazio publikoak erosi ahalmena bermatu behar duela eta horri loturiko soldata igoerak aplikatu behar dituela galdatu dugu, horren alde lan eginez eta aitzakiak albo batera utziz. Bestalde, Madrildik inposatzen den birjarpen-tasa desager dadin kaleak hartu ditugu.

Ondorioz, sektore publikoa bezalako esparru anitz batean ere marko propioaren aldarria erdigunean kokatzea lortu dugu.

> Nafarroako zahar egoitzak

Nafarroak ez du sekula izan zahar egoitzen hitzarmen propiorik, Espainiako estatu mailako hitzarmena aplikatzen baitute. LAB sindikatuaren ekimen eta inizatibaren ondorioz, bertako hitzarmena negoziatzeko lehen mahaia eratu zen. Ondorioz, bertako eremua irekitzeko ezinbestekoa den lehen pausua eman dugu eta aurtengo ikasturtean indar berezia eman diogu blokeatua den negoziazio esparru horri, irudimen handiko ekimen eta greba egunak deituz sektorean. Gure ekimenen ondorioz, indar berri bat hartu dute negoziazioek eta nolabait etena zen mahaia berriz martxan da.

> EAEko kimiketako hitzarmena

Kimiken sektorea erabat estatalizatua den sektorea dugu, ez baita sekula egon bertako hitzarmenik, ez autonomikorik,

ezta probintzia mailakorik ere. Beraz, estatu mailako hitzarmena aplikatzen zaie sektore horretako lan-harreman guztiei. Hori aldatzeko, sektoreko gainontzeko sindikatuarekin batera, EAEko kimiketako lehen mahai irekitzeko deia luzatu dugu igarotako ikasturtean. Bide hau sektoreko gure ordezkari eta afiliatuarekin elkarlanean hasi dugu, prozesua etengabe partekatuz. Patronalaren erantzuna uste genuena izan da, ordea: Espainiako estatu mailako markoan eroso daudela eta ez dutela bertako esparrua irekitzeko borondaterik adierazi dute. Gu, ordea, ez gara geldirik egon, ezta egongo ere, ezezko honen aurrean borrokan jarraituko dugu bertako lehen kimiketako hitzarmena erdietsi arte.

> Bizkaiko ostalaritza

Bizkaiko ostalaritzako hitzarmenean LAB sindikatuaren ekimenez erabat estatalizatua den errestaurazio modernoko marken esparrua txertatzea lortu dugu. Ez da lan erraza izan; izan ere, bakarrik ekin diogu esparru honetan estatalizazioaren aurkako borrokari, gurera ekarri behar izan ditugularik patronala zein beste sindikatu guztiak. Hala ere, Espainiako estatu mailako patronalak ongi ulertu du LABetik bultzatu dugun mugimendua eta duen garrantzia eman dio: hitzarmena inpugnatuko duela adierazi du. Gauzak horrela, lanean jarraitzen dugu inpugnazio hori atzean utzi eta behingoz esparru hau hemengo negoziazio eremura ekar dezagun.

> Kolektibitateak

Urteak dira esparru honetan ere estatalizazioa gainditzeko borrokan dihardugula. Ez dira gutxi izan bertako negoziazio esparrua irekitzeko saiakerak, baina Espainiako estatu mailako patronalak bere horretan dirau. Aurtengo ikasturtean ere bide berean jarraitu dugu lanean: EAE mailako kolektibitateen lehen hitzarmenaren alde lantoki zein kaleak hartu ditugu eta patronala interpelatzen jarraitu dugu mahai berri bat deituz.

> Nafarroako teknikarien hitzarmena

Esparru honetan ere gogor ari gara Nafarroan negoziazio eremu honen alde lanean eta borrokan. Sektore berria da, estatu mailan ere apenas garatua, eta gure apustua garbia da: bertako negoziazio esparrua bultzatu eta Nafarroako lehen hitzarmen kolektiboa erdiestea. Aurtengo ikasturtean pauso berri asko eman ditugu bide honetan dugun helburu hori ahalik eta azkarren errealitate bihurtu dadin.

> Osasunbidea

Batetik, osasun sistema publikoa ahulduko lukeen medikuen eskusibotasuna ezabatzeko asmoari aurre egin diogu, era irregularrean eskusibotasun osagarria jasotzen zutenen kasuak salatuz. Bestetik, iazko kurtsoan grebak egin ondoren akordioa lortu genuen, osasun langileentzat karrera profesionala lortuz. Aurten, akordioa egikaritzeko mobilizazioak berrotu ditugu, eta lortu da osasun langileek karrera profesionala epe laburrean izatea, dagoeneko legezko izapideak martxan baitira helburu hori lortzeko. Osasun langileek beharrezkoa zuten aitortzaren zati bat dakar honek. Eta aurrerapausoa Nafarroan bertan bertako langileen lan baldintzak erabakitzeko helburu estrategikoan.

8.- ZERBITZU PUBLIKOAK ETA ZAINZA BORROKAN

Oro har zerbitzu publikoen aldeko borrokek, eta zaintzak espezifikoki, ikasturte osoko borrokaldia ardaztu dutela esan dezakegu.

Batetik, 2023ko azaroan mundu mailan aitzindaria izan den Greba Feminista Orokorra burutu genuen. Mugimendu Feministak deitu eta bertako gehiengo sindikalak bere egin zuen greba izan zen. Zaintza erdigunera ekartzeaz gain, zaintza sistema publiko komunitario baten aldeko aldarriarekin interpelatu genituen instituzioak, zaintza banaketa orekatu beharrezkin jendartea eta gizonak espezifikoki, eta patronala ere zuzen interpelatu genuen, zaintzaile profesionalen lan baldintzak duintzea aldarrikatuz.

Greba Feminista Orokorra bultzada izan zen zaintza sektoreko langileen aldarrikapenak eta borrokak lantzeko garaian. Eta alderantziz, Greba Feminista Orokorren arrakasta ezin ulertu zaintzaile profesionalen laneko borrokaldirik gabe:

> **Nafarroako eta Arabako zahar egoitzak.** Nafarroan, borroka nagusiki estatalizazioari aurre egitea izan da helburu nagusia, langileen lan baldintzak hobetzeko bide argia dela ulerturik. Araban ere, lan baldintzak duintzea ezinbestekoa

dela aldarrikatuz mobilizatzen jarraitzen dugu, soldatetan, jardunaldian eta enpleguaren kalitatea eta zerbitzua hobetzeko ezinbesteko diren ratioetan jarriz arreta berezia.

> **Hainbat egoitza:** Matia fundazioa, CEAR, Inmon eta Santa Mariñe zaharren egoitzak, Grupo Cinco. Lan baldintzak duintzeko eta prekarietateari atea ixteko borroka garrantzitsuak ari gara burutzen hainbat enpresetan.

> **Greba Feminista Orokorrean** espazio eta aldarri bereziak izan ditu etxeko-langileen esparruak; izan ere, errealitate ezberdina da langile zehatz horiena. LAB sindikatuko etxeko-langileen sail sindikala ere burubelarri aritu da bertan lanean eta ekarpen kualifikatua gauzatu du, LABek eginiko ibilbidea ere Greba Feministaren mesedetan jartzen.

Bestetik, kalitatezko zerbitzu publiko duinak exijitzeko mugimendu eta mobilizazioek ez dute etenik izan gurean. Osasungintzaren aldeko borroka jendartearen babes zabala lortu du, baina ez da izan kalitatezko zerbitzu publikoen aldeko gai bakarra. Zerbitzu publikoetako lan gatazkek, lan baldintzen inguruko aldarrikapenak jasotzeaz gain, zerbitzua bera hobetzeko eskaera zuzena izan dute, eremuko langileen borroka zerbitzu publikoen defentsan lehen mailako erreferentzialtasuna lortzeraino.

Administrazio publikoak, ordea, entzungor egiten jarraitzen du langileen aldarrikapenen aurrean. Iaz dagoeneko salatu genuen itxitako gatazken portzentaia askoz ere baxuagoa zela administrazio publikoan, eta aurtengo ikasturtean ere gauza bera gertatzen da. Itxitako gatazken portzentaia orokorra %46,32 den bitartean, administrazio publikoan soilik %26,47koa da. Edonola ere, grebak egin diren gatazketan administrazio publikoa mugitzera behartu dugu, grebak egin diren gatazketan itxitakoen ehunekoa %60ra igotzen baita.

> **EAE-ko funtzio publikoko dinamika.** Bertako langileen lan baldintzak bertan erabakitzea aldarrikatzeaz gain, inposizioei aurre egiteko eta kalitatezko zerbitzu publikoen aldarrikapena erdigunean jartzeko greba eta mobilizazio egunak izan ziren.

> **Garraio publikoa:** Bilbobus, anbulantziak, Dbus, Bizkaibus, Euskotren. Zerbitzu publikoa izanagatik, kasu askotan azpikontrataturiko enpresak dira, Bilbobus eta anbulantziak kasu, eta kasu horietan gatazka blokeatuta egon da denbora luzez. Horiez gain, ugariak izan dira sektorean mobilizatu diren enpresa desberdinak, eta den-denek dute amankomunean sektorearen eraldaketa beharra. Garraio publikoa azpikontratatu den eremuetan arazoak ugaritzen zaizkigu, gero eta argiago dago eredia agortua dagoela eta begibistakoa da eraldaketa beharra.

9.- TRANTSIZIO EKOSOZIALA BULTZATUZ, ENPLEGUAREN DEFENTSA ALDARRIKATUZ

Trantsizio ekosoziala lehen mailako erronka da. Sistema kapitalista izan da krisi ekosozial sakon honetan murgildu gaituena. Kapital eta patronal handien mesedera eraikitako politikak nahiz hazkunde etengabe oinarrituriko ekonomia ereduak dagoeneko nabaritzen ari garen ondorio kaltegarriak pairatzea ekarri dute, eta eredia errotik aldatu ezean, etorkizunean are eta kaltegarriagoak izango dira. Klima larrialdia, biodibertsitatearen galera, lur eta ozeanoen kutsadura edota lehengaien agortzea dagoeneko errealitate dira gurean. Ekonomia ereduak izugarritzko eraldaketa behar du, eta horrek enpleguan nahitaez izango du eragina. Kapitala ere jabetu da eraldaketa beharraz, kapital metaketarekin jarraitu ahal izateko bere trantsizio propioa diseinatzeko hasi baita, langileon kalterako izan daitekeena. Guk esku-hartze publiko sendoa izango duen bidezko trantsizio ekosozial eta feminista aldarrikatzen dugu, planifikatua izango dena eta langileen parte-hartzea bermatuko duena. Politika industrial sendo bat behar dugu, trantsizioan oinarrituko dena, eta esan bezala, esku-hartze publiko sendoarekin, planifikatua eta langileen parte hartzea ahalbidetuko duena.

LAB prest dago bidezko trantsizio ekosozial batean ekarpena egiteko, bere arduratik jokatzeko, langileon eskubideak erdigunean kokatzeko. Prest proposamenak egiteko. Ez da egongo, ordea, kapitalaren mesedera, bidezkoa ez den eta behar den norabidearen aurka garatuko den trantsizio batean. Trantsizioa langileen aurka eta kapitalaren mesedetan eraiki nahi duen orok aurrean topatuko du LAB, langileon interesak defendatzeko prest. Baditugu dagoeneko hainbat adibide:

> Mecaner

2023ko irailean, Stellantis multinazionalak Mecaner enpresaren itxiera prozesu luzeari ekin zion, zeina apirilaren 26an amaitu zen akordiorik gabe. Bide horretan asko izan dira abiatutako dinamikak: bilera instituzionalak, mobilizazioak, eskualdeko baterajotzeak... eta noski, grebak.

Borroka dinamika horren oinarri izan da LAB sindikatuak beste hainbat sindikatu eta eragilerekin batera bultzaturiko ekimen berritzaile bat: Euskal Herri mailako lehen plan ekosoziala enpresa zehatz bati lotua. Aitzindaria izateaz gain, hurrengo prozesuetarako abiapuntu eta irakasgai oso garrantzitsua ere izan da honakoa; bide berri baten lehen harria izan dela esan dezakegu.

Planaren funtsa lantegiaren itxieraren aurrean enpleguaren defentsa bultzatzea izan da, baina lantegiaren berformulazio ekosoziala ardatz izanik, gure lan zein bizi baldintzak eta trantsizio ekosoziala bateratuz.

Sindikatu batzuen interes eta posizio korporatibistak langile guztien batasuna eragotzi badu ere, eskualde mailan antolatutako "Mecaner herriarentzat" dinamikan parte hartzen jarraitzen dugu, bertako hainbat eragile sindikal eta sozialekin elkarlanean, Mecanerren eta eskualdearen geroaren inguruko gogoeta eta proposamen zehatzak garatuz. Borroka ez da amaitu.

> Cementos Rezola

Añorgako enpresak 56 langile kaleratzeko Enplegu Erregulazio Txostena (EEE) jarri berri du mahai gainean. Ustez arrazoia deskarbonizazioaren baitan jarririko helburuak betetzea bada ere, gauzatu diren bileretan argi ikusi da benetan enpresak duen arrazoia labearen produkzioa Arrigorriagara eramatea dela. Ondorioz, LABetik trantsizio ekosozialaren bidean dagokigun arduraz jokatu badugu ere, enpresak murrizketak aurrera eramateko aitzakia bezala erabiliko badu aurrean izango gaitu. Horregatik, gogor salatu dugu enpresaren jarrera eta greba mugagabe dinamika bati hasiera eman enpresak duen plana bertan behera gelditu dadin.

10.- EREMU PREKARIZATUENETAN SINDIKALISMOA INDARTZEN

Eremu prekarizatuetan langileak antolatzea bera da erronka bat. Patronalak argi du langileen lan baldintzak hobetzeko langileen antolakuntza ezinbesteko tresna dela, eta dituen bide guztien bidez oztopatzen du hori: arlo legaletik, langileak sakabanatuz edota prekaritate forma berriak sortuz digitalizazioaren laguntzaz. Bestetik, mehatxuak, kaleratzeak, jazarpen sindikala... gero eta ohikoagoak ari dira bilakatzen eremu horietan. Eta gogoan izan behar dugu prekaritatea bera dela oztopo langileen antolakuntzarako, patronalak langileen aurkako neurriak hartzeko aukera egote hutsak bere horretan oztopatzen duela antolakuntza.

LABek urteak daramatza prekarizatutako eremuetako langileak antolatzeko estrategia garatzen. Gazteen presentzia handiko eremuetan, sektore feminizatuetan, langile migratu eta arrazializatuen presentzia altuko sektoreetan edo aniztasun funtzionala duten langileak antolatzen ari da. Plataforma handietan, riderretan zein bestelako eremuetan aurrerapausoak ari da ematen.

> Amazon

Langileekin bide luze eta oparoa egiten ari gara, eta sekzio sindikal indartsua antolatua dugu Amazon enpresak Trapagaranen duen lan-zentroan. Horrekin batera, azpikontrata bezala Amazonentzat lan egiten duten enpresetan ere ildo propioa garatu dugu, ikuskaritzara eta epaitegietara joz zeszio ilegala salatzeko.

Mundu mailan izugarriko indarra badu ere, urduri jarrarazten ari gara eta horren erakusle da LABeko ordezkari zein afiliatuen aurka hartzen ari den jarrera oldarkorra. Grebalariei aurkako mehatxuak eta zehapenak izugarriak dira, eta langileen lan baldintzak hobetzeko borroka jazarpen sindikalaren aurkakoarekin uztartzen ari gara LABeko kideok.

> Telepizza

Gazteen prekarizazioari ere leku berezia eman diogu aurtengo ikasturtean LAB sindikatuan, gazte eragile ezberdinekin

elkarlana gauzatu. Horren adibide dugu Telepizzan izaniko ibilbidea, zeina Ernai gazte antolakundearekin partekatuta gauzatu dugun. Bertan, langile gazteek dituzten lan-baldintza prekarioen egoera salatu dugu; baita, oro har, gazteen prekarizazio sistematikoa ere.

> Enplegu Zentro Bereziak

Enplegu Zentro Bereziak aniztasun funtzionala duten langileak lan merkatu orokorrera sartzeko bitarteko gisa sortu bazi-ren ere, gaur egun esku-lan merkearekin merkatuan lehiatzen duten eta administrazio publikotik izugarrizko diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresa bihurtu dira. Aniztasun funtzionala duten langileen prekarizazio maila izugarrizkoa da, beraz. Aurtengo ikasturtean Enplegu Zentro Bereziak langileekin mobilizazio dinamika bat hasi dugu, barne antolaketan urrats berriak eman ditugun bitartean. Helburua da Nafarroarako eta EAerako Enplegu Zentro Berezien hitzarmen propioa lortzea, langile horientzat guztientzat gutxienekoa izango den sektoreko hitzarmena, eta bide batez, estatalizazioari aurre egiteko urratsa. Datorren ikasturtean garrantzia berezia hartuko duen gatazka izango da.

> Nekazaritza eta abeltzantza sektorea Nafarroan

Lehen sektoreak protagonismo berezia izan duen ikasturtea izan da pasa dena, eta zentzu horretan LAB sindikatuak ere egin du ekarpena. Horren erakusle ditugu Nafarroan nekazaritza eta abeltzaintzako esparru edo sektorean gauzaturiko mobilizazio historikoak. Eta zergatik diogu historikoak izan direla? Lehen aldia delako langile horiek batera kaleak hartu dituztena. Gogoan izan behar dugu langile migratu eta arrazializatuen presentzia oso handiko eremuak direla, prekari-zatuak, urte luzez antolatzeko zailtasunak izan dituztenak. Euren aldarri nagusia bizi baldintzak hobetzea izan da, hain justu atseden egunak luzatzea. Bada, LABek dinamizaturiko borrokaldiaren ondorioz hitzarmenean aldarri hori txertatzea erdietsi da, beste hainbatekin batera.

ERANSKINAK

1.- Sektore mailako borroak

| EREMUA | SEKTOREA | FEMINIZATUA | BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA | BORROKA MOLDEAK | EGOERA |
|---------------------------|-------------------|-------------|------------------------------------|--------------------|---------|
| ARABA | | | | | |
| Aisialdia | Soziokomunitarioa | Ez | Negoiazio Kolektiboa | Grebak | Irekita |
| Zahar egoitzak | Soziokomunitarioa | Bai | Negoiazio Kolektiboa | Grebak | Irekita |
| Aniztasun funtzioanala | Soziokomunitarioa | Bai | Negoiazio Kolektiboa | Mobilizazioak | Itxita |
| Salgaien garraioa | Garraioa | Ez | Negoiazio kolektiboa | Elkarretaratzeak | Itxita |
| Ostalaritza | Ostalaritza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Elkarretaratzeak | Irekita |

| EREMUA | SEKTOREA | FEMINIZATUA | BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA | BORROKA MOLDEAK | EGOERA |
|---------------------------------|--------------------------|-------------|------------------------------------|--------------------|---------|
| BIZKAIA | | | | | |
| Esku hartze soziala | Soziokomunitarioa | Bai | Negoiazio kolektiboa | Greba | Itxita |
| Kiroldegiak | Kiroldegiak | Ez | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Itxita |
| Ostalaritza | Ostalaritza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Irekita |
| Elikagai merkataritza | Elikagai merkataritza | Bai | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Itxita |
| Foru Aldundiko Garbitzaileak | Garbiketa | Bai | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Itxita |
| Bulegoak | Bulegoak | Ez | Negoiazio kolektiboa | Manifestazioak | Irekita |
| Grafikagintza | Grafikagintza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Irekita |

| EREMUA | SEKTOREA | FEMINIZATUA | BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA | BORROKA MOLDEAK | EGOERA |
|-------------------------------|-----------------------|--------------------|-------------------------------------|------------------------|---------------|
| GIPUZKOA | | | | | |
| Esku hartze Soziala | Soziokomunitarioa | Bai | Negoiazio kolektiboa | Mobilizazioak | Itxita |
| Aniztasun funtzionala | Aniztasun funtzionala | Bai | Negoiazio kolektiboa | Mobilizazioak | Irekita |
| Eraikin eta lokalen garbiketa | Garbiketa | Bai | Negoiazio kolektiboa | Mobilizazioak | Itxita |
| Kale garbiketa | Kale Garbiketa | Ez | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Itxita |
| Salgaien garraioa | Garraioa | Ez | Negoiazio kolektiboa | Negoiazio kolektiboa | Irekita |
| Egurgintza | Egurgintza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Elkarretaratzeak | Itxita |

| EREMUA | SEKTOREA | FEMINIZATUA | BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA | BORROKA MOLDEAK | EGOERA |
|-------------------------------|------------------------------|--------------------|-------------------------------------|------------------------|---------------|
| NAFARROA | | | | | |
| Irakasleak | Irakaskuntza | Ez | Lan baldintzak | Mobilizazioak | Irekita |
| Ikastolak eta gizarte ekimena | Irakaskuntza | Bai | Errelebo kontratua | Mobilizazioak | Irekita |
| Hezkuntza sistema osoa | Irakaskuntza | Bai | Negoiazio kolektiboa exijitzea | Mobilizazioak | Irekita |
| Zahar egoitzak | Soziokomunitarioa | Bai | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Irekita |
| Funtzio publikoa | | Ez | Euskararen kontrako eraso | Mobilizazioak | Itxita |
| 0-3 | Irakaskuntza | Bai | 2 urteko gelen irekiera | Mobilizazioak | Irekita |
| Nekazaritza eta abeltzaintza | Nekazaritza eta abeltzaintza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Manifestazioak | Itxita |
| Ostalaritza | Ostalaritza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Grebak | Itxita |
| Zurgintza | Zurgintza | Ez | Negoiazio kolektiboa | Elkarretaratzeak | Itxita |

| EREMUA | SEKTOREA | FEMINIZATUA | BORROKA AKTIBATZEKO ARRAZOIA | BORROKA MOLDEAK | EGOERA |
|------------------------|--------------------------------|-------------|---|--------------------|---------|
| EAE | | | | | |
